

DraftMe-k ondo funtzionatzeko, hainbat ekintza nagusi egin behar dira egunero eta etengabe. Hauek dira gure negozio-ereduaren oinarriak:

1. Plataforma garapena eta mantentzea: webgunea eta aplikazioa beti eguneratuta egon behar dute, erabiltzaileek bideoak igo, estatistikak sartu eta profila editatu ahal izateko. Segurtasuna eta erabilgarritasuna bermatzea funtsezkoa da.
2. Bezeroarentzako laguntza: jokalaria eta klubek galderak edo arazo teknikoak dituztenean, modu azkar eta profesionalean lagundu behar da. Horrek erabiltzailearen esperientzia hobetzen du eta konfiantza sortzen du.
3. Marketin eta promozioa: plataforma ezagutarazteko sare sozialak, influencer-ak eta online iragarkiak erabiltzea beharrezkoa da. Horrela, jokalaria gazte eta klub berriak erakarriko ditugu.
4. Edukiaren kudeaketa eta analitika: jokalarien bideoak eta datuak modu egokian kudeatu behar dira. Era berean, profilak eta estatistikak aztertzea lagungarria da erabiltzaileei gomendio pertsonalizatuak eskaintzeko.
5. Harremanak eta lankidetzak: klub, ojeatzaile eta futbol eskolekin harreman egonkorak mantentzea funtsezkoa da talentua modu eraginkorrean aurkitzeko eta erabiltzaileei balioa eskaintzeko.

Laburbilduz, DraftMe-ren funtsezko jarduerak dira teknologia garatzea, laguntza eskaintzea, marketina egitea, edukia kudeatzea eta lankidetzak mantentzea, dena jokalaria eta klubek balioa jasotzeko.